Toponimia gizarteratzeko lanen garrantzia

Gizakia omen da, izaki guztien artetik, abstrakziorako ahalmena duen bakarra. Hau da, bere pentsamenaren bitartez, aurrean ez dituen alegiazko errealitate batzuk bizi ditzakeela. Adituen esanetan, burmuinaren hiperfuntzioari zor diogu gaitasun hori: gaixotasun izan zitekeen hori ezinbesteko baliabide bihurtu zen gizakiaren eboluzioan.
Nola edo hala, horri esker, edozein tokiri egin dakioke erreferentzia bertan izan barik. Hortik, eta giza-lengoaiaren eskutik, sortu zen toponimia: gizakiaren unibertsoko espazioak antolatzeko "koordenada" sistema berezia, egun satelite bidezko GPSek egiten dutenetik ez oso urruna.
Hobeki ulertzeko ilustra dezagun adibide batez. Irudika dezagun Gorbeiako Itxina bezalako paraje bat, labirinto karstikoa, eta Euskal Herria osoan aurki dezakegun paisaiarik ulergaitzenetakoa. Nahikoa izan da bertan toponimia aplikatzea, anabasa geologiko hori mende eta mendeetan zehar antolatzeko eta menderatuta izateko. Haren bitartez, inguruko herritarrek ez dute inolako oztoporik izan artzain-txabola, ikaztegia edo harpea non ziren zehazteko. Toponimiaren garrantziaz ohartarazteko, pentsa dezagun nolakoak izango liratekeen mapak, leku izenak agertuko ez balira...
Definizioz, esan daiteke toponimo bat entitate geografiko bati erreferentzia egiten dion izen berezia dela. Azalpen nahikoa tekniko eta akademikoentzat baina ez toponimian harago sartu nahi duenarentzat. Leku izenak gehiago dira, zerbait miresgarri, egiatan existitu gabe guztiok ezagutzen, onartzen eta konpartitzen duguna. Sinetsi ikusi barik... Ez al zen hori fedearen definizioa? Eta hori dena gutxi balitz, gure pentsamen eroaren ekoizpena den toponimia hori, azken finean, gizarte, kultura, herri edo gizabanakoen historia gorde duen geruza sistema bat da. Ez hemen, munduko bazter guztietan baizik, ez baita toponimia erabiltzen ez duen kultura edo zibilizaziorik ezagutzen.
Esan bezala, hiztun komunitate bati buruzko berebiziko informazioa iragaten digun sistema da: linguistikoa, historikoa, etnografikoa, antropologikoa... toponimian edozer sartu daitekeelako.
Horrela gauzak, erraz ulertuko dugu nola erabaki zen toponimoei ondare kultural ez-materialaren tratamendua eman behar zitzaiela, New York-en 2007ko abuztuan izandako Izen Geografikoen Normalizazioari buruzko Nazio Batuetako Bederatzigarren Konferentzian.
Eta ondare hitza aipatzen dugun unetik bertatik, guri, Administrazioari, dagokigu horri beti loturik doazen hiru faseen beteketa bermatzea: ondare hori a) jaso, b) egonkortu eta c) hedatu behar dugu. Batez ere, azken hau, hedatzearena, ondare ez materiala izateagatik, desagertzeko arrisku bizia duelako. Beste modura esanda, toponimiaren erabilera sustatu egin behar dugu haren irautea bermatzeko.
Ondare hori gal ez dadin, ahalegin berezia egin behar dugu, azkeneko mendean erabat aldatu zaizkigulako produkzio sistemak eta, ondorioz, behinola lurrarekin zegoen lotura estua barreiatu egin delako ia desagertu arte. Arau orokor moduan esan daiteke behar ez den toponimoa ez dela erabiltzen eta erabiltzen ez den toponimoa desagertu egiten dela. Bai hemen bai munduko azken bazterrean ere.
Bestalde, eta arestikoari jarraiki, esan behar da toponimo guztiek ez dutela galtzeko arrisku bera. Berriz ere, ilustra dezagun adibide batekin. Aurkintza eder bat ezagutzen dut, Aitzalde izena duena. Nik badakit non den baina nekez asmatuko du hau irakurtzen duen besteren batek. Errazagoa izango zaion, beharbada, behin esanda Aiztondo mendiaren hegian dagoela. Hala ere, seguru aski, oraindik ez da non den asmatzeko gauza esango. Baina hurbiltzen joango da esaten zaionean mendi horretara Beruete herritik igo ohi dela, herri hori Basaburuan dagoela eta Basaburua Nafarroa dela eta

Nafarroa Euskal Herriko atal bat dela eta, azken hau, Europaren barruan dagoela. Identifikaziorako zailetik errazerako ibilbide honetan ohartuko gara azken izenek (Europa, Euskal Herria...) ez dutela inolako galtzeko arriskurik baina bai izan dezakete beste muturrekoek (Aitzalde...). Horrelakorik gerta ez dadin, ondarea iraunarazteko hiru fase orokor horietan lan egin behar dugu. Goazen banan-banan ikustera.

Toponimia jaso. Lehenik eta behin izenen ahozko testigantzak jaso behar ditugu, haien bitartez herri ahoskapena eta kokapen zehatza zein den jakiteko. Premia larrienekoa da, berriemaile egokiak, tamalez, geroz eta gutxiago direlako. Biltze-lan hori ezin daiteke edonola egin eta egokiena da Euskaltzaindiari aholkua eskatzea jakiteko zein metodologia erabili behar den, zoritxarrez, gaizki egindakoek, ez dutelako gehienetan atzerabiderik.

Bestetik agiri historikoetan izen horiek utzitako arrastoa aztertu behar dugu. Oso lan garrantzitsua baina, lanen hurrenkeran, eta nire aburuz, bigarren fasean egin behar dena, informazio hori ez delako galtzen urte bat beranduago egitea erabakiz gero.

Ahozko eta idatzizko informazio historikoa eskuan izanda, eta horretarako adostutako irizpideak baliatu eta gero, izendapen estandarizatu bakar bat aukeratu behar dugu. Bakarra esan dugu mapa batean eta erabilpen funtzionalerako ezin dugulako bat baino gehiago erabili. Honetarako ere, Euskaltzaindia dago, laguntzeko prest.

Euskara oraindik ere normalizatu gabeko hizkuntza denez, azkeneko fase honetako emaitza askok arazoak sortzen ditu sarri herri-hartzaileen artean. Zenbaiten iritziz, ahozko forma hautatu behar da, forma historiko eta estandarizatua albo batera utziz, “herriarena” delako. Baina, egun erabiltzen direnen artean, zein da ahozko forma egoki eta bultzatu beharrekoa: Austiarmin; Austearmin; Austarmin Austigiarbin ala Austigiarmin? Eta zer egin behin jakinda gutxira arte Austegiarmin dokumentatu izan dela? Azken hau bazterrean utzi eta ahozko horietako bat da indarrez ezarri beharrekoa? Ez al da hori izen horri egin dakiokeen traiziorik handiena egitea?

Gainera, herri ahoskerako Zebilla, Güerba edo Cajtilla bezalako izenak sekulan idazten ez baditugu zergatik bai Zeani (Zeanuri), Elorrixo edo antzerakoak. Hizkuntza sendo batek ez dituen izen-anormalizazioak hizkuntza ahulak onartu behar?

Horrelako hutsegiteetan maisuak izan gara, sarri, euskaldunok. Beti gehiegikeria gurtzen eta txalotzen... Berdin txuletak jaten, harriak jasotzen edo gure izenen “herri” ebakera zein den erabakitzen. Are gehiago, irudi denez, askorentzat “euskarazkoagoa” da txarren ahoskatzen den izena: oker borobila. Euskarazkoagoa al da Zeani Zeanuri baino? Zeren arabera? Izenen estandarizazioa ezinbestekoa da eta gainerako hizkuntzek egiten badute ez dago arrazoirik gurean ere ez egiteko.

Toponimia egonkortu. Behin izenen informazioa eta forma estandarizatuak ditugula, egonkortzeari ekin behar diogu. Horretarako hoberena, ofizialtzea da. Baina gure herrietako toponimia ofizialtzeko modurik ez dugu salbu eta herri- edo kale-izenetan. Horretarako egokia da oso, irizpide batzuk finkatzea udal ordenantza baten bitartez arautzea: elebitan joango diren, elebakarrean, berezko toponimoa lehenetsi sorrera berrikoen eta pertsona izenen aurrean...

Bestetik, egokiena da forma bakar bat onartzea, eta ez elebitan, praktikan INEra bidaliko den informazioa, programa informatikoetan erabiliko dena eta abar, horietako bat bakarra izango delako, gehienetan, erdarazkoa.

Bestetik, herriko toponimia osoa zabaltzeko eta ezagutarazteko biderik onena mapa bat egitea da, gerora, etxe guztietara banatuko dena. EAEn aukera ederra dago horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak urtero-urtero horretarako laguntza deialdi berezia egiten duelako. Mapa kostuaren hiru laurdenak ordaintzen ditu, beraz, udalei gainerako laurdena eta BEZ dagozkie. Laguntzak

udalerriaren azaleraren araberakoak izaten dira baina diru nahikoa izaten da mapa on bat egiteko.
Mapa bat egin aurretik, aholkagarria da oso, bildutako toponimia guztiarekin erakusketa bat egitea. Egingo dugunaren mapa beraren inprimaketa aurreko proba ere izan daiteke. Eta arrakastatsu suerta dadin, ezinbestez parte-hartzea sustatu behar dugu: etxe guztietara gonbidapenak, berriemaileak izan direnei gonbidapen berezia, kultura elkarteak...
Erakusketak onurak besterik ez dakartza: toponimia lana parte hartzaile bihurtzen dugu, ekitaldi kultural bat egiten dugu, balizko okerrak zuzentzeko oso bide efektiboa da eta, azken finean, egindako lanari legitimitate bat ematen zaio, herritarren "izenpea" daramalako. Sendagai onenek bezala, ez du kontraindikazio ezagunik.
Behin mapa izanda edonolako erabilpena eman diezaiokegu: ikastetxeekin lan egin, mendi elkarteekin, turismo bulegokoekin eta abarrekin.
Bestetik, komenigarria da oso, izenen informazioa gizarteratzea, batik bat, estandarizazio prozesuan jasandako aldaketak ulertu ahal izateko. Aldaketa horien zergatia ─forma dokumentatuak...─ ezagututa, askoz errazago onartuko dira egokitzapen horiek. Horretarako aholkagarriak dira argitalpen xume eta erakargarriak. Ikerketa sakonak bestelako helburuetarako egokiak diren arren, ez dira oso efektiboak gure helburu honetarako. Lan osoak webgunean edo bestelako euskarri digitalean eskaini daitezke.
Gure izenek seinaleetan izango duten presentziari erreparatu behar diogu: kale izenak, bide seinaleak, etxe-izenak edo toponimoak dauden tokietakoak: ibilbide toponimikoen aukera ere hor dugu.
Hortik aurrera, nahi duguna egin dezakegu toponimia gizarteratzeko: umeentzako jokoak, unitate didaktikoak, baliabide informatikoak...
Dena dugu baliagarria, Aiztondo mendian dagoen Aitzalde tokiaren izena bezalakoak galdu ez daitezen. Eta ez ahaztu: ezagutu eta erabiltzen den toponimoa ez da sekulan galtzen.

Durangon, 2009ko ekainaren 4an
Felix Mugurutza Montalban